


Euskal AEko industri produkzioaren indizea %3,7 hazi zen 2004an

Hazkunde hori Estatukoa (%1,6) eta Europar Batasunekoa (%2,1) baino handiagoa izan zen

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2004an %3,7 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2003aren aldean. Hazkunde hori azken lau urteetako handiena izan zen eta 2003an hasitako susperraldia berrestu zuen.

Gure inguruko industri jarduerari dagokionez, Europar Batasunak eta Estatuak ere joera positibo bera erregistratu zuten 2003tik izandako industri jardueraren bilakaeran, baina lortu zituzten hazkunde-tasak Euskal AEkoak baino txikiagoak izan ziren. Izan ere, 2004ko Euskal AEko industri produkzioaren indizearen hazkundea Estatukoa (%1,6) baino bi ehuneko-puntu gorago kokatu zen, eta Europar Batasuna-15ekoa (%2,1) baino 1,4 puntu gorago. Azkeneko handitzea kontuan hartu gabe, Europar Batasuna-15ek hazkunde txikiagoa lortu zuen, %1,6koa, hain zuzen.

1. grafikoa: industri produkzioaren indizearen lanegunez zuzendutako urteko batez besteko hazkundeak. 1999-2004. (%)



Iturria: Eustat, INE (Estatua) eta Eurostat (EB)

Bilakaera lurralde historikoka

Lurralde historikoka, 2004ko industri produkzioaren indizearen batez besteko hazkunde-tasak postiboak izan ziren lurralde guztietan, baina intentsitate desberdinekin. Guztiak kokatu ziren Estatuko eta Europako batez bestekoen gainetik. Araba nabarmendu zen %7,2ko hazkundearekin, eta Bizkaiak eta Gipuzkoak antzeko tasa neurritsuagoak lortu zituzten, %2,8koa eta %2,6koa, hurrenez hurren.

2004an berriro ere Araban izan ziren industri jardueraren hazkunde-tasarik handienak eta gainera aurreko bi ekitaldietan baino diferentzial handiagoarekin. Gipuzkoak aurreko urteko hazkunde baido hiru hamarren handiagoa lortu zuen, eta Bizkaiak 2003ko hazkunde tasa bikoiztea lortu zuen 2004an, aurreko urteko susperraldia motelagoa izan zen-eta.

Sektore-bilakaera

Industri sektore handien sailkapenaren arabera, sektoreka, 2004an metatutako aldakuntzen hazkundeak izan zituzten *energiak* (%15,9), *ekipo-ondasunek* (%4,5), *bitarteko ondasunek* (%2,2) eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* (%1,1). Kontsumo-ondasun iraunkorrek izan zuten negatiboa, %3,4ko atzerakada izan baitzuten.

1. taula: Lanegunez zuzendutako urteko batez besteko industri produkzioaren indizearen aldakuntza-tasak. (%)

Kontzeptua	2002	2003	2004
Indize orokorra: Euskal AE	-1,2	2,0	3,7
Araba	1,2	2,6	7,2
Bizkaia	-1,1	1,4	2,8
Gipuzkoa	-2,7	2,3	2,6
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE			
Kontsumo-ondasunak	2,5	-1,2	-0,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrek	3,0	-5,0	-3,4
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek	2,2	0,9	1,1
Ekipo-ondasunak	-4,7	1,1	4,5
Bitarteko ondasunak	-0,1	0,7	2,2
Energia	-3,0	14,0	15,9

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagarako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp